



MUSIKA-TALDE GAZTEEN POLTSA GAZTERIA UNITATEA. 2019. URTEA

1. Zer da?

Iruñeko Udaleko Gazteria Unitateak musika-talde gazteen poltsa kudeatzen du, talde horiei bultzada emateko eta aukerak eskaintzeko Iruñeko elkarte eta kolektiboen antolatutako zenbait gunetan kontzertuak eman ditzaten eta udal programazioan.

2. Funtzionamendua

Poltsa honetan sartu nahi duten talde edo bakarlariek Gaztediaren Etxearen bitartez eman beharko dute izena, izena emateko fitxa beteta.

Herri-kolektiboen poltsako taldeengana jotzen ahalko dute, nahi izanez gero, beren programazioen barruan ikuskizunak antolatzeko. Talde hauek ere udal programazioan kontuan hartuko da.

Talde edo bakarlariaren emanaldi bakoitzeko, Gazteria Unitateak 200 euro emango dizkio taldeari, ordainsari gisara, betiere talde bakoitzak urteko 2 emanaldi ematen ahalko dituela, gehienez ere.

Gainera, emanaldi bakoitzerako 700 euro ordainduko dira, gehienez ere eta beharrezkoa bada, behar teknikoak estaltzeko.

1. Poltsan sar daitezkeen talde/bakarlarien betekizunak

1. Taldekideen erdia, gutxienez, eta bakarlarien kasuan, bakarlaria bera, Iruñean bizi beharko dira izena emateko unean. Pertsona bat talde batean baino gehiagotan egon daiteke. Taldekide berak dituen talde bat ezin izango da izen ezberdinekin aurkeztu.
2. Taldekideen bi herenek, gutxienez, 14 eta 30 urte artean izan beharko dute (biak barne).
3. Ez da onartuko diskoetxe batekin kontratu bat indarrean duten talderik edo bakarlaririk. Finantzaketa propioaren bidez diskoak argitaratu dituzten taldeak, ordea, bai onartuko dira.
4. Talde edo bakarlari parte-hartzaileek antolakuntza-taldea eta beste erakunde kolaboratzaileak salbuetsiko dituzte plagioa dela medio edo jabetza intelektualaren arloan indarrean den araudia nolabait urratzetik eratorritako edozein arduraz, hartara parte-hartzaileak izango direlarik arduradun bakarrak.

2. Jardueraren betekizunak:

1. Elkarbizitza, askatasuna eta sormena sustatzea eta irabazi-asmorik gabeko entitateek antolatutakoak izatea.
2. Iruñeko biztanle orori irekiak izatea. Inolaz ere ez dute inor bazter utziko -ez banako ez talde-, emanaldietara joaten direnen artetik.
3. Iruñeko udal-mugartean egin behar dira.
4. Ezin dira izan Iruñeko Udalak finantzatzen dituen bestelako programen barrukoak.
5. Aurten egitekoak izatea.
6. Kolektibo, elkarte edo entitate eskatzaile bakoitzak gehienez ere emanaldi bat egiteko muga ezarri da.

3. Aurkeztu beharreko agiriak Iruñeko Gaztediaren Etxean (Zangotza k. 30, 948233512)

1. Izena emateko fitxa
2. Audioa, formatu digitalean (gehienez ere 3 abesti edo 10 minutu). Jatorrizko kantak edota jatorrizko kanten bertsioak onartuko dira.